



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## ‘Musika Degeneratuaren’ kontzertua egongo da astelehenean Arriaga Antzokian, Nazien parametro ideologikoekin bat ez zetorrelako debekatuta egon zen musikarekin

- Roger Padullés tenorrek Naziek isilarazi nahi izan zuten musika abestuko du; pianoan Rubén Fdez. Aguirre, biolinean Cecilia Bercovich eta biolontxeloan María Martínez musikarien laguntza izango du.
- Kontzertua martxoaren 28an izango da, astelehenean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

**Bilbo, 2022ko martxoaren 25a.** – Historian zehar, musika eta kultura ikurrak izan dira: askatasuna, sormena, pentsamendua, bidaiatzea eta norberaren testuingurutik haragoko lekuetara joatea sinbolizatzen dute. Espiritu hori da datorren astelehenean, martxoaren 28an, aldarrikatu nahi dutena, **Roger Padullés** tenorrek eta haren batera arituko diren musikariek: **Rubén Fdez. Aguirre** pianoan, **Cecilia Bercovich**ek biolinean eta **María Martínezek** biolontxeloan. Eta Arriagako foyerrean egingo dute, Naziek isilarazi nahi izan zuten musika interpretatuz.

Izan ere, historian zehar ahalegin ugari egin dira askatasun artistikoa kontrolatzeko eta kaiolatzeko, kulturarekin berarekin zerikusirik ez duten irizpideak jarraituz. Naziek “Entartete Musik” deritzonarekin (Musika Degeneratua, euskaraz) egindakoa horren begi-bistako adibidea da. Izan ere, Musika Degeneratutzat jo zuten alemaniar espirituaren araztasuna galbideratzen zuten erritmo arrotz eta kaltegarrietan oinarritutako musika oro, adibidez, jazza edo juduek konposatutako edo interpretatutako musika.

Agintera iritsi zirenetik, Naziek oso argi zuten edozein motatako adierazpen artistiko kontrolatu behar zela eta haien parametro ideologiko zorrotzekin bat ez zetozen guztiak debekatu behar zirela. Jazarpen hori ez zen obrara mugatzen; aitzitik, sortzaileei beraiei pertsonalki eragiten zien. Horren adibide dira, besteak beste kontzentrazio esparruetan hil ziren Ilse Weber, Viktor Ullmann eta Erwin Schulhoff konpositoreen kasuak. Beste batzuek zorte handiagoa izan zuten, Joseph Kosma-k adibidez, J. Prévert poetaren babesari esker biziraun ahal izan baitzuen Paris okupatuan.

Asteleheneko kontzertuan, Roger Padullés, Rubén Fdez. Aguirre, Cecilia Bercovich eta María Martínezek gogora ekarriko dituzte egile horiek eta baita beste batzuk ere; guztiak ere gai izan ziren, beren larruetan garai izugarri bat bizi eta sufritu arren,

kalitate handiko obrak konposatzeko eta, beren musikaren bidez, iluntasunaren artean argi izpiren bat zuen mundu bat sortzen laguntzeko.

**ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)